

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	HORMIGOITU AURREKO ERAGIKETAK	Iraupena	30
Kodea	MF0277_1		
Lanbide-arloa	ERAIKINGINTZA ETA OBRA ZIBILAK		
Lanbide-eremua	Egiturak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Hormigoi-eragiketak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Hormigoiak garraiatzea eta isurtzea	Iraupena	60
	Hormigoiak trinkotzea eta ontzea		50
	Obrako lan osagarriak (zeharkakoa)		50
	Pastak, morteroak, itsasgarriak eta hormigoiak (zeharkakoa)		30
	Hormigoi-eragiketetako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0277_1 HORMIGOITU AURREKO ERAGIKETETAN PARTE HARTZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Hormigoiak obran jarri aurreko prozesuak deskribatzea, hormigoitu behar diren elementuak eta enkofratu-, armadura- eta hormigoi-motak identifikatuz, eta obra-leku horietako lan-metodoak zehaztuz.
- E11.1 Hormigoiarekin egiten diren lanetan erabiltzen diren termino teknikoak ondo ulertzea.
- E11.2 Hormigoi-, enkofratu- eta armadura-motak zerrendatzea, haien osagaien eta funtzioen arabera.
- E11.3 Obrako elementu jakin baten enkofratze- eta armatze- ezaugarriak eta hormigoiarenak ezagutzea.
- E11.4 Obrako elementu jakin baten hormigoia obran jarri aurretik egin behar diren lanen metodoa eta segida zehaztea.
- E11.5 Obra-leku jakin bateko hormigoia obran jarri aurretik egin beharreko eragiketetarako behar diren ekipoen eta bitarteko osagarrien ezaugarriak deskribatzea.
- A2: Norbera babesteko ekipoein, tresnekin eta erremintekin lan egitea, jasotako argibideak errespetatuz lan-metodoei, segurtasun-kondizioei eta lanaldiaren amaierako eragiketei dagokienean.
- E12.1 Jarduera jakin baterako behar diren makinak, erremintak eta tresnak identifikatzea.
- E12.2 Makinak, erremintak eta tresnak jarduera jakin baterako behar den trebetasunez eta zehaztasunez erabiltzea.
- E12.3 Jarduera jakin baterako behar diren norbera babesteko jantziak eta ekipoa behar bezala hautatzea eta erabiltzea.
- E12.4 Erabilitako tresna, erreminta eta makinak biltegitratzeko, zaintzeko eta haien mantentze-lanak egiteko eragiketak deskribatzea eta aplikatzea.
- A3: Hormigoiak obran jarri aurreko eragiketetan ohikoak diren baliabide osagarriak hautatzea, instalatzea eta haien mantentze-lanak egitea, jasotako argibideak errespetatuz lan-metodoei, segurtasun-kondizioei eta lanaldiaren amaierako eragiketei dagokienean.
- E13.1 Jarduera jakin baterako behar diren baliabide osagarrien funtzioa, konposizioa eta erabilera (instalazioa, egiaztapena, mantentze-lanak eta kentzea) identifikatzea.
- E13.2 Elementu jakin baten enkofratuen apeo eta eskoramendurako behar diren elementu osagarriak muntatzea eta desmuntatzea, emandako jarraibideak betez.
- E13.3 Enkofratze-elementuen eta hormigoiaren arteko ukipen-azaletan desenkofratzeko produktuak aplikatzea, emandako prozedura eta baliabideak kontuan hartuta.
- E13.4 Erabilitako baliabide osagarriak garbitzeko eta biltegitratzeko eta haien mantentze-lanak egiteko eragiketak deskribatzea eta aplikatzea.
- A4: Hormigoiak obran jarri aurreko eragiketetan ohikoak diren babes kolektiboko elementuak ezagutzea eta haien jartzen eta haien mantentze-lanak egiten laguntzea, jasotako argibideak errespetatuz lan-metodoei, segurtasun-kondizioei eta lanaldiaren amaierako eragiketei dagokienean.
- E14.1 Jarduera jakin baterako behar diren babes kolektiboko ekipoen funtzioa, konposizioa eta erabilera (instalazioa, egiaztapena, mantentze-lanak eta kentzea) identifikatzea.

EI4.2 Obra-leku jakin bat hormigoitu aurreko lanetarako babes kolektiboko elementuak instalatzen eta kentzen laguntzea, norbaitek gainbegiratuta eta jasotako argibideak errespetatuz.

EI4.3 Erabilitako babes kolektiboko elementuen mantentze-lanak eta egiaztapena egiteko eragiketak deskribatzea eta aplikatzea.

A5: Nerbio aurrefabrikatuak, aurretiaz egindako armadurak eta habearteko elementuak banatzeko eta jartzeko teknikak aplikatzea, lan-metodoen eta segurtasun-neurrien inguruan emandako jarraibideak errespetatuz.

EI5.1 Nerbio aurrefabrikatuak jartzea, finkatutako antolamendu eta ekidistantzia kontuan hartuta, ezarritako segurtasun-neurriak betez eta adierazitako errendimendua lortuz.

EI5.2 Aurretiaz egindako armadurak jartzea, finkatutako antolamendu eta ekidistantzia kontuan hartuta, ezarritako segurtasun-neurriak betez eta adierazitako errendimendua lortuz.

EI5.3 Habearteko elementu modularrak jartzea, finkatutako antolamendu eta ekidistantzia kontuan hartuta, ezarritako segurtasun-neurriak betez eta adierazitako errendimendua lortuz.

Edukiak

1. Hormigoiak obran jarri aurreko eragiketarako ekipoak:

- Mailak. Berunak. Eskuairak. Neurketa-zintak. Enkofratu modularrak.
- Enkofratu modularren osagaiak muntatzeko eta estutzeko erremintak.
- Hormigoiak obran jarri aurretik lan-lekuetan egon behar duten baliabide osagarriak:
- Norbera babesteko ekipoak eta babes kolektiboko ekipoak.

2. Hormigoiak obran jarri aurreko eragiketak:

- Enkofratu modularrak erbiltzeko prozesuak eta kondizioak:
 - Enkofratu modularren sailkapena. Elementuak identifikatzea.
 - Enkofratu modularren apeo eta eskoramenduen muntaketa.
 - Enkofratu modularren muntaketa.
 - Desenkofratzeko produktuak erabiltzea
 - Enkofratu modularrak kentzea eta garbitzea, eta haien mantentze-lanak egitea.
- Nerbioak, armadurak eta habearteak jartzeko prozesuak eta kondizioak:
 - Elementuen banaketa eta bilketa.
 - Nerbio erresistenteak eta erdierresistenteak jartzea.
 - Aurretiaz egindako armadurak jartzea.
 - Habearte galduak jartzea.
 - Habearte berreskuragarriak jartzea.
- Hormigoia obran jarri aurretik egin beharreko eragiketarako prozesuak eta bete beharreko segurtasun-kondizioak planifikatzea.

3. Hormigoiak obran jarri aurreko eragiketak exekutatzea:

- Zuloak eta lubakiak eskuz hondeatzea, profilatzea eta lautzea.
- Enkofratu modularren apeo, eskoramendu eta panelak muntatzea, erabilera hauetarako: Zimenduak, hormak eta euskarriak.
- Enkofratu modularren apeo, eskoramendu eta panelak muntatzea, erabilera hauetarako: Gatzariak, forjatuak, lauzak eta laminak.
- Aurretiaz egindako armadurak jartzea. Zimenduak, hormak eta euskarriak.
- Aurretiaz egindako armadurak jartzea. Gatzariak eta forjatuak.
- Nerbio eta habearte aurrefabrikatuak jartzea, honelakoak egiteko: Noranzko bakarrek forjatuak eta sare-formako forjatuak.
- Hormigoiak egitea eta/edo hornitzea.
- Hormigoia obran jarri aurreko eragiketarako lanak egiteko planifikatutako prebentzio-neurriak betetzea, pertsonentzako segurtasun-kondizioak ere betez.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Hormigoi-eragiketak